

Nola gustatzen zaizue patata-tortilla?

–Arratsalde on. Zein da zure izena?

–Olatz naiz.

–Olatz, gaur patata-tortillaren eguna da, badakizu?

–A bai? Ummm, zer goxoa!

–Bai, bai... Galdera bat: nola gustatzen zaizu zuri patata-tortilla: tipularekin ala tipularik gabe?

–Niri patata-tortilla tipularik gabe gustatzen zait!

–Tipularik gabe???? Benetan? Eta gutxi egina ala ondo egina?

–Gutxi egina, bigun-biguna...

–Baaaai, bigun-biguna, ederra dago horrela.

–Ondo da, mila esker, Olatz... Eta zuek, nor zarete? Nola gustatzen zaizue zuei patata-tortilla?

–Kaixo, ni Joel naiz. Niri ere patata-tortilla gutxi egina gustatzen zait, baina tipularekin, beti!

–Arratsalde on! Ni Eva naiz. Niri patata-tortilla ez zait tipularekin gustatzen, beti jaten dut tipularik gabe eta ondo egina. Gutxi egina ez zait batere gustatzen!

–A, ez, e? Ez zaizu gutxi egina gustatzen? Ai, ama, zer arraroa! Hemen daukagu beste gazte bat. Arratsalde on, nor zara?

–Hepa! Pili naiz.

–Pili, nola gustatzen zaizu zuri patata-tortilla?

–Bada, niri patata-tortilla tipularekin eta gutxi egina gustatzen zait. Buaa, zer goxoa!

–Bai, sekulakoa dago horrela! Eskerrik asko denoi!